DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2024ko otsailaren 8an egindako ohiko bilkuran, honako Adierazpen Instituzional hau onartu zuen, gehiengoz, *(1., 3., 6. eta 7. puntuak)* eta aho batez *(2., 4., 5. eta 8. puntuak):*

*"ERAKUNDE ADIERAZPENA, SAHARAKO ARABIAR ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOAREN (SARD) 48. URTEURRENA DELA-ETA*

*"Egun gutxi barru, Saharako Estatuaren (SEAD) sorreraren berrogeita zortzigarren urteurrena ospatuko du saharar herriak, sorrerako eta eraikitzeko faseak arrakastaz gainditu eta gero, erabateko subiranotasuna eta askatasuna lortze aldera. Berrogeita zortzi urte hauetan, sakrifizioei eta batasun nazionalari esker, saharar herriak nortasun nazional propioa sendotzea lortu du; saharar guztiak harro egon behar dira beren erakunde nazionalen funtzionamenduaz, nahiz eta baldintza gogorretan erbesteratuta egon eta baliabide-gabezia handia eduki.*

*Saharar herria autodeterminaziorako eta independentziarako eskubide legitimoei lotuta dago inoiz baino gehiago, eta Marokoren aurkako borrokarekin jarraituko du, potentzia okupatzailea izateaz gain, Mendebaldeko Saharan errepresioa aplikatzeaz gain, baliabide naturalak espoliatu baititu. Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordioari dagokionez, Luxenburgon egoitza duen Europako Justizia Auzitegiaren epaiak albiste handi eta funtsezko aurrerapen gisa jaso zirela egiaztatu da. Auzitegi horrek honako hau adierazi zuen: «Marokoko Erresumak Mendebaldeko Saharari buruz duen subiranotasuna ez dute aitortzen ez Europar Batasunak, ez estatu kideek, ez eta, oro har, NBEk ere». Horregatik, beharrezkoa da Espainiak eta Europar Batasunak Fronte Polisarioarekin negoziazio bat abian jartzea, merkataritzako eta ekonomiako harreman egokiak ezartzeko.*

*Horregatik guztiagatik,*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el día 20 de febrero de 2024, aprobó, por mayoría, *(los puntos nº1, nº3, nº6 y nº7)* y por unanimidad, *(los puntos nº2, nº4, nº5 y nº8)*, la siguiente Declaración Institucional:

*"DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL 48 ANIVERSARIO DE LA REPÚBLICA ÁRABE SAHARAUI DEMOCRÁTICA (RASD)*

*"Dentro de pocos días el Pueblo Saharaui conmemorará el cuadragésimo octavo aniversario de la creación del Estado Saharaui (RASD), después de haber logrado superar con éxito las fases de su fundación y edificación hacia la liberación y la plena soberanía. En estos cuarenta y ocho años el Pueblo Saharaui ha logrado consolidar una identidad nacional propia gracias a los sacrificios y a la unidad nacional; cada saharaui debe sentirse orgulloso del funcionamiento de sus instituciones nacionales a pesar de las duras condiciones del exilio y de la falta de recursos.*

*El Pueblo Saharaui está más que nunca apegado a sus legítimos derechos a la autodeterminación y a la independencia y continuará la lucha contra Marruecos, potencia ocupante, responsable de la represión y el expolio de los recursos naturales del Sahara Occidental. Respecto al acuerdo entre la Unión Europea y Marruecos se constata que fue recibida como una gran noticia y un avance esencial las sentencias del Tribunal Europeo de Justicia, con sede en Luxemburgo, que manifestó que "la soberanía del Reino de Marruecos sobre el Sáhara Occidental no está reconocida ni por la Unión Europea ni por sus Estados miembros ni, de manera más general, por la ONU". Por ello es necesario que España y la Unión Europea inicien negociación con el Frente Polisario en orden a establecer las oportunas relaciones comerciales y económicas.*

*Por todo ello,*

10740n XVII

*1. Donostiako Udalak adierazten du ez dagoela ados Espainiako Gobernuko presidenteak Mendebaldeko Sahararekiko izandako aldaketa erradikal eta historikoarekin.*

*2. Donostiako Udalak Nazio Batuei eskatzen die gatazka horren bidezko eta behin betiko konponbidea lehenbailehen sustatzeko, hau da, Saharar Herriak autodeterminazio-eskubidea erabili ahal izateko, hain zuzen ere erreferendum aske eta garden bat eginez, era horretan, amaitu gabeko deskolonizazio-prozesua bukatzeko.*

*3. Donostiako Udalak berresten du Fronte Polisarioa dela saharar herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa.*

*4. Donostiako Udalak Marokori eskatzen dio saharar preso politiko eta kontzientzia-preso guztiak berehala askatzeko, eta giza eskubideen urraketak bertan behera uzteko bere espetxeetan eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan.*

*5. Donostiako Udalak eskatzen du Mendebaldeko Sahararen Erreferendumerako Nazio Batuen Misioak Mendebaldeko Saharan okupatutako lurraldeetan giza eskubideen kontrol eta jarraipenerako dituen eginkizunak eta egitekoak zabal ditzala.*

*6. Donostiako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio estatus diplomatiko bat eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkaritzari, saharar herriaren ordezkari bakar eta legitimo gisa, eta beharrezko ekimen politikoak bultza ditzala irtenbide zuzen eta behin betikoa lortzeko, Mendebaldeko Sahararako Nazio Batuen Bake Plana betez.*

*7. Donostiako Udalak salatzen du Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Sahararen baliabide naturalak espoliatu dituela.*

*8. Donostiako Udalak Mendebaldeko Saharan diharduten enpresei eskatzen die errespeta ditzatela baliabide naturalen gaineko subiranotasun iraunkorrerako eskubidea eta lurralde okupatu bateko baliabide naturalen ustiapenari aplika dakizkiokeen nazioarteko zuzenbide humanitarioko arauak".*

===================================

*1. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián expresa su disconformidad con el cambio radical e histórico del presidente del Gobierno de España sobre el Sahara Occidental.*

*2. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta a Naciones Unidas a que promueva sin más dilación la solución justa y definitiva de este conflicto, que pasa por el ejercicio del derecho de autodeterminación del Pueblo Saharaui mediante la celebración de un referéndum libre y transparente como culminación del proceso de descolonización inacabado.*

*3. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián reafirma que el Frente Polisario es el único y legítimo representante del Pueblo Saharaui.*

*4. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián exige a Marruecos que lleve a cabo la inmediata liberación de todos los presos políticos y de conciencia saharauis, y cese las violaciones de los derechos humanos en sus prisiones y en los territorios ocupados del Sahara Occidental.*

*5. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián solicita que la Misión de las Naciones Unidas para el Referéndum del Sahara Occidental (MINURSO) amplíe sus funciones y cometidos en el control y seguimiento de los Derechos Humanos en los territorios ocupados del Sahara Occidental.*

*6. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián solicita al Gobierno Español que otorgue un estatus diplomático a la representación del Frente Polisario en España, como único y legítimo representante del Pueblo Saharaui; y que promueva las iniciativas políticas necesarias para lograr una solución justa y definitiva sobre la base del cumplimiento del Plan de Paz de las Naciones Unidas para el Sahara Occidental.*

*7. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián denuncia el expolio de los recursos naturales del Sahara Occidental por parte del Gobierno de Marruecos.*

*8. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián solicita a las empresas que operan en el Sahara Occidental que respeten el derecho de soberanía permanente sobre los recursos naturales y las reglas del derecho internacional humanitario aplicables a la explotación de recursos naturales de un territorio ocupado".*

=====================================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**